GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

44. zk. 1996ko abuztua

# geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27




# jaiak eta kitto!

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



# Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

| DEPARTAMENTUA | ZERBITZUA | HELBIDEA | TELEF. | FAXA |
|---|---|---|---|---|
| UDALETXEA | PRENTSA KABINETEA | Espainia plaza, z/g | 16 13 37 | 16 13 60 |
| | GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK) | Espainia plaza, z/g | 16 13 44 | |
| | GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA | Espainia plaza, z/g | 16 13 30 | |
| | PERTSONAL SAILA | Espainia plaza, z/g | 16 11 41 | 16 16 53 |
| | IDAZKARITZA | Espainia plaza, z/g | 16 13 20 | |
| BULEGO TEKNIKOAK | ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA | Dato, 11 | 16 11 87 | 16 11 88 |
| | ERROLDA ETA SOLDADUTZA | Dato, 11 | 16 11 06 | |
| | BORONDATEZKO DIRU-BILKETA | Dato, 11 | 16 16 68 | |
| | ZERGEN GESTIOA | Dato, 11 | 16 11 33 | |
| | INGURUGIROA | Dato, 11 | 16 11 20 | |
| OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC) | KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB) | | 16 12 40 | |
| UDAL ARTXIBOA | ARTXIBOA-ARGIBIDEAK | | 16 14 89 | 16 14 99 |
| ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA | ARGIBIDEAK | | 16 12 88 | |
| VILLA SUSO JAUREGIA | ARGIBIDEAK | | 16 12 70 | |
| HEZKUNTZA SAILA (IME) | | Fray Zacarias | 16 12 16 | |
| GIZARTE ETXEAK | JUDIMENDI | Urriak 12 kalea, z/g | 16 17 40 | |
| | LANDATXO | Santa Maria kalea, 4 | 16 16 82 | |
| | IPARRALDE | Zuberoa plaza, z/g | 16 17 60 | |
| | ABETXUKO | | 24 47 14 | |
| | ARIZNABARRA | | 13 36 91 | |
| EUROPA GIZARTE-ETXEA | ARGIBIDEAK-KULTURA | | 16 12 31 | |
| | BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA | | 16 12 61 | |
| KONTZIENTZI ERAGOZPENERAKO BULEGOA | | | 13 36 91 | |

VICTORIA
HAEC EST QUAE VINCIT

AYUNTAMIENTO DE VITORIA GASTEIZ KO UDALA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu gasteiz aldizkaria

**Zuzendaria:**
JOSU KINTAS
**Erredakzioburua:**
XABIER ZABALETA
**Erredakzio-batzordea:**
LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI
ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL
LOREA ZURIMENDI
MIEL ANJEL ELUSTONDO
DAVID ALVEZ
EDU LOPEZ DE LUZURIAGA
**Maketazioa:**
ALEX BADILLO
**Itzultzailea:**
IÑAXIO LOPEZ DE ARANA
**Komikia:**
IÑIGO SARASOLA
**Marrazkiak:**
AITZIBER IRIONDO
**Publizitatea:**
KARLOS FDEZ. DE BETOÑO
**Argazkilariak:**
EDORTA SANZ
LUKAS ETXEBERRIA
JOSEBA UNZALU
**Kolaboratzaileak:**
TXIPI ORMAETXEA
JUAN JOSE KASTRESANA
IÑAKI GAUNA
TXABI ARNAL GIL
MIKEL GARMENDIA
**INPRIMATEGIA:**
GERTU KOOP. E.
(ZUBILLAGA, OÑATI)



# Sei egun ero



**ABUZTUAREN** laua.. Igandea. Arratsaldeko seiak. Alderdi politikoek ez dute sinatzen baina kontzentrazio baterako deialdia luzatua dago. Beti edo gehienetan bezala Andra Mari Zuriaren Enperantzan.

Erruz ari dira hurbiltzen. Uholdea dirudi inguruko kaleetatik ateratzen den jendetza koloretsuak.

Seiak jotzear, denak zain. Eta hara hor baten bati tiroka hastea bururatu. Nolako danbarrada gainera, jende guztia dardarka, saltaka jarri du eztanda-izuak. S. Migeleko dorretik ere, ikaraz edo, bere aterkin handia "parakaidas" gisara zabaldu eta airera salta du gizon tripa handi batek. Hau nahastea! Ez da gutxiagorako! Enparantzan ere tiro hotsak non-nahi, baina balak berezi samarrak direla nabarmentzen da. Gasteizko konbatea oroitarazten duen monumentu erraldoia ere ke hertsi batek irentsi duela dirudi. S. Migeletik hegan zetorren gizon handiak ere suertea izan du, Postas kaleko etxe eder batean leihotik sartu eta lurreratzea lortu baitu.

Denak oihuka, inork ez dio inori kasorik egiten, ezta entzun ere.

Haserretu ote dira? Galdetu diot nere buruari.

Baina ez: "GASTEIZKO JAIAK" hasi dira. Zeledonek Postasko aire portutik S. Migel eleizako behatokirako bidea, asko kostata eta izerditan burutu du. Handik "GORA GASTEIZ" oihukatu.

Sei egun luzez, Gasteiz ez da ohikoa izango. Blusak alai, tabernak gainezka, gaupasak ugari, mozkorrak non-nahi... denetarik.

Hiriko enparantza eta txoko guztiak ekintzez zorabiatuko dira, moeta guztietako ekintzez. Urte bat gehiagoz, Matxete enparantza Euskal kulturgune bilakatuko da: abeslari, dantzari, trikitixa, bertsolari, antzerki... Beste guneak ere halaxe. Bakoitzak zer nahi huraxe aurkituko du.

Urtean behin merezi du geldiunetxo bat egitea, arazoak alde batera uztea. Beraz, ondo pasa jaiak, hala ere, hor hemenka sakabanaturik eta etorri ezinik diren hainbat gasteiztar, arabar eta euskaldun anai eta arrebek ere jaiak gozatuz hementxe izateko duten eskubidea zanpatua dutela ahaztu gabe.

***Abel Enbeita***

gasteizko euskaldunon aldizkaria
**Pedro Asua, 2 - 3.a**
**Tfno. eta faxa 22 21 53**
**argitaratzailea:**
GEU
*6.000 Aleko Tirada*
*Lege-Gordailua VI-582/92*
*ISSN: 1133-0988*
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geugasteiz aldizkaria aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA: ____________

ABIZENAK: ____________

KALEA: ____________ ZKIA: ____________ Pisua: ____________

Kode Postala: ____________

HERRIA: ____________

# Gasteizko Joanak

✓ 1883 arte Gasteizko jaiak irailean egiten ziren eta 1884ean erabaki zen abuztuaren 1etik 6ra egitea Andre Mari Zuriaren ohorez.

✓ Guk dakigula, Jaiak bi urtetan baino ez dira eten. 1886. urtean Udalak ez zuelako erreal erdi bat ere jaiak antolatzeko eta 1936an Gerra Zibilak eraginda.

✓ Farolen prozesio ezaguna duela 142 urte ospatu zen lehen aldiz 1854. urtean.

✓ 1957an jaitsi zen lehen aldiz Zeledon San Miguel Elizako dorretik. Lehen aldi hartan, ordea, ez zuen zorte handiegirik izan. San Migueleko dorrea eta Plaza Berriko etxea lotzen zituen kablea hautsi eta Zeledon elizako teilatu gainera erori zen. Hala eta guztiz ere, ideia arrakastatsua izan zen eta harrezkero urtero Zeledon zerutik jaisten da jaiei hasiera emanez.

✓ 1962an banatu ziren lehe aldiz "Urrezko Zeledon" sariak Gasteizen alde egindako lanagatik nabarmentzen ziren erakunde, elkarte eta lagunen artean. Julian Ortiz de Viñaspre izan zen estatua txikiaren egilea eta lehen urteko saridunak El Casino Artista Vitoria eta Manuel Benitez "El Cordobes" izan ziren.

## Bertsoak

### ongi etorri Zeledon



*Egiten digu hainbat on*
*emanik mila zorion*
*jaiak ugari egonagatik*
*halakoak inon.*
*Urte bat zain gera egon*
*berdin andre eta gizon*
*zu zera jaien protagonista*
*ongi etorri Zeledon.*





EGILEA:
Zigor Enbeitia

**Bejondeigula !**

Duela hainbat hilabete handitu genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan.

Tu Invernadero
Zure Lore Sortak
ALDABE 6 BEHEA
tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

"ARGOS"
ZURE BURUA EZAGUTZEKO TOKIA
Astrologi aholkularitza
Kirol eta terapia-masajea
Bete-beteko terapiak
Astrografia
Erreflexoterapia
Ikastaroak
Gasteizko hiribidea 89 (atzealdea)
Tfnoak: 24 26 71 eta 22 93 29

ELEKTRIZITATEA
GURIA
muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna
Matxaria, 2- 7. pabilioia • Tfnoa: 943 -70 08 95
Faxa: 943-10 85 47 20600 EIBAR



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Jaiak joan



✓ 1969an Udalak hartu zuen beregain Urrezko Zeledoia banatzeko ardura. Ordurarte <<Mugimenduaren Probintziako Zuzendaritzak>> betetzen zuen zeregin hori.

✓ 1978an hamabi emakume "Jatorrak" blusen lagun taldearekin atera ziren. Ordurarte ez zen inoiz emakumerik egon blusa koadrila batean.

✓ Aldizkari hau irakurtzen duzuen asko eta askok Zeledon bakarra ezagutuko duzue: Iñaki Landa, alegia. Baina aurretik Jose Luis Isasik gorpuztu zuen urte askotan Zeledonen pertsonaia. 1980an hartu zuen Iñakik Jose Luisen lekua.

✓ 1986an, aurten bezala, jaiak egun bat luzatzea ala ez eztabaidatu zen. Orduan parrandazaleek zorte hobea izan zuten eta jaiei beste egun bat gehitu zitzaien.

✓ Duela hamar urte, arabako gozogileen elkarteak "jaietako postre ofiziala" sortu zuen. Aldizkari honetan tarta egiteko errezeta eskaintzen dizuegu.

## GEU ERE TELEDENDA

Gertatu behar zena gertatu da. Telebista, irrati eta era guztietako komunikabideen eraginen tentaldiari ezin eutsiz, Geu ere, geure produktuak merkaturatzera bultzatuak ikusi ditugu geure buruak. Hasteko, (baina ez pentsa hemen geratuko garenik, ez), gure komikilariak diseinaturiko kamiseta eder hau izango duzue erosgai.

Noiz, non eta zenbat? Ba, jada, ohiko lekuetan eta Landaburu Akademian (ikus kontraportada), eta zenbat balio duten axola ez zaizula




**1.200 pezeta**

## argazkia non

**uztaileko aleko irabazleak**

**Mikeldi Zinemeko sarrerak:**

GORKA PEREZ DE GOLDARAZENA
ISIDRO FERNANDEZ DE LUKO

**Euskaldunon Elkarguneko kamisetak:**

OSKAR SANTOS
BALENTIN FERNANDEZ DE LUKO

**ERANTZUNAK:**
**1.- Prado Pasialekua**
**2.- Independentzia kalea**

*irailan berriz ere (abuztuak galerazten ez badigu) zuekin izango gara*

ONGI ETORRI
xurrut



KUTXI 103
GASTEIZ

Gasteizko Paperdenda Berria



Arriaga
Euskalgintza S.L.

- 500 m²-ko paperdenda
- Ikasmateriala
- Opariak eta ofimatika
- Ordenadoretan azken nobedadeak eta gainera enpresetarako eguneroko zerbitzua

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12 / 01002 Gasteiz



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# XABIER GOMEZ

## <INTUIZIOA ERABILTZEA DA LIBURUAK EROSTEKO BIDERIK ONENA>

## Nor da?

- Xabier Gomez Martin dugu, Herrikoia liburudendan langile ari dena, Plaza Berrian, Mertxe Lozano arduradunaren aldamenean.

- 1.967an jaioa da, urtarrilaren 11an. <Kaprikornio, noski! Kaprikornio tipikoa naiz. Umore txarrekoak gara>. Ez genuen horrelakorik berehala esango. <Kalean ez dugu jenio hori erakusten, baina etxean bai>. Umoreaz salbu, ez daki askoz gehiagorik kaprikornioren gainean. <Zeinua ez da batere positiboa>.

- Salamankan sortu zen eta urtea bete orduko, Donostian zen, gurasoak hiriburu horretara aldatu ziren-eta. <Anai-arrebak Donostian ziren ordurako; ni baino helduagoak dira>. Gasteizen bizi da duela hamabi bat urtez gero. Txelo du neskalagun eta berarekin bizi da. Lana, berriz, Herrikoia liburudendan egiten du.

- Heldurik ikasi digu euskaraz. <Donostian entzuten nuen euskaraz baina ez nuen ikasi. Gasteizen hasi nintzen, euskaltegian>. Historia ikasi zuen unibertsitatean eta euskaraz ikasteari ere lotu zitzaion. Oraintxe ere, IKAn ari da, bederatzigarren urratsa burutu berri duela.

- Irakurtzea du afizio. <Beti izan naiz irakurzalea>. Bestalde, Euskal Herriko historian arakatzea ere zeharo du gustoko. <Zinea ere bai, baina hau ez da, berez, nire afizioa: Txelogandik nireganatu dut, afizio berria da niretzat>.



***Nola definitzen duzu zure ofizioa? Liburu saltzaile zara?***

Liburu saltzaile ere bagara baina kultur eragiletzat-edo joko nuke neure burua.

***Liburudendetan lan egiten dutenak irakurzale dira, berez?***

Ez.

***Zein liburu nahi izaten ditu jendeak?***

Denetarik. Udan, adibidez, nobela historikoa eta klasikoa. Nobelak, dena den. Saiakerak, berriz, gai bati buruz jakinmin zehatza duen jendeak irakurtzen ditu. Horiek beti ari dira begira zer berri argitaratu ote den.

***Euskaraz ala gaztelaniazko liburuak erosten ditu Herrikoiara datorrenak?***

Denetarik.

***Azkenaldian arrakasta nabarmena izan duen libururik?***

Euskaraz, oraintxe, Su etena Belfasten. Gaztelaniaz, aldiz, Garcia Marquezen azkena, Noticia de un secuestro.

***Eta zure gomendioak gure oporretarako?***

Itxaro Bordaren azkena, Bizi nizano munduan, Rinnekangas-en Ilargia ihesi, eta Euskal Herriko historiari buruzko zer edo zer... Euskal herritarrek ez dute beren historia ezagutzen. ETBko lehiaketetan ere nabarmena da hori: jendeak ez daki Euskal Herriko historiarik. Penagarria da hori. Jendeak ez daki batere. Gaztelaniaz ere, Euskal Herriko historiaz zerbait irakurtzeko gomendatuko nuke nik. Esaterako, Historia de Pamplona, Jimeno Juriorena. Oso egokia da.

***Egia da euskarazko itzulpenak saltzen ez direna?***

Zein den liburua! Lehen txarrak ziren itzulpen asko baina orain onak dira...

***Zer irakurri duzu, zuk zeuk, azkena?***

Visteme de hierba, Susan Power-ena. Iparrameriketako indioei buruzkoa da: beren

ditare
UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA
Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

zure euskal LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
Herrikoia



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

historia, bizitza, magia, arbasoekin duten lotura eta abar aztertzen ditu.

***Badago liburuak erosteko errezetariorik?***

Ez. Intuizioak balio du. Bestetik, informazioa ere hor da, egunkarietan-eta. Dena den, intuizioak balio du gehien.

***Noiz erosi duzu azken liburua?***

Joan den astean. De aquellos barros... Prensa navarra y nacionalidad vasca.

***Eta erregalatu zizuten azkena?***

Mendiko bat, uste dut.

***Afizio omen duzu irakurtzea. Zein duzu bizioa, hala ere?***

Tabakoa. Eta noizean behin, goxoak jatea.

***Herrikoiara azaldu zaizuen pertsona famatuena?***

Alkatea bera, gure Cuerda jauna. Eta Atxaga, Gerardo Markuleta, Patxi Zubizarreta eta beste asko.

***Idazleetan atseginena?***

Xabier Etxaniz. Eta Patxi Zubizarreta.

***Eta zailena?***

Oteiza. Jenio txarrekoa oso. Etorri zen eta bere liburuak ez zeuden erakusleihoan eta berotu zen.

***Zer dakizu euskararen ordenantzen berri?***

Udalarenak ez dira benetakoak. Udalak ez du hizkuntza plangintzarik.

***Ezagutzen duzu GEU Elkartea?***

Bai, eta aldizkaria ere bai. Jasotzen dugu. Zerbait aldatu beharra dauka. Informazioa emateko modua-edo. Monografikoak kaleratu eta abar. Bestela, berdina da hilero-hilero. Ale bereziak-edo zer edo zer asmatu behar du.

***Zein da etxeko lanik nekeena?***

Sukaldeko garbiketak. Janaria prestatzea ere bai: noizik eta behin, gustora egiten dituzu, baina egunero-egunero, denborarik gabe-eta, itomena da.

***Poesiarik irakurtzen al dugu?***

Gutxi, oso minoritarioa da.

***Poeta gomendagarriren bat?***

Gabriel Aresti. Eta Bitoriano Gandiaga bera. Gaztelaniaz, Miguel Marquez, edo Garcia Lorca.

***Nori idatziko zenioke poema?***

Neskalagunari.

***Gasteiz ala Donostia?***

Oraintxe, bizitzeko, Gasteiz. Donostia, berriz, denboraldi bat bertan emateko.

***Zer du Donostiak Gasteizek ez duenik?***

Itsasoa.

***Eta Gasteizek, Donostiak ez duenik.?***

Lasaitasuna, beharbada.

***Badago Gasteizen euskaraz bizitzerik?***

Zaila da, baina bai. Leku euskaldunak aukeratu behar dituzu horretarako. Ondorioz, oso giro estua litzateke, artifiziala. Ez dakit komeni den. Hainbat dendarik daki euskaraz hitzegiten, baina ez dakigu badakitena: harategietan, okindegietan...

***Zein galdera nahi zenuke nik zuri egitea?***

Zein izan da azkenaldiko momenturik txarrena.

***Zein izan duzu azkenaldiko momenturik txarrena?***

Irungo alardean gertatutakoa. Lotsagarria izan zen. Emakumeek beren eskubideak dituzte. Alardeko "soldaduen" jarrera, jendearen irainak, ostikoak... Hori ez zen nik ezagutzen nuen Euskal Herria, ezezaguna zen. Nazkagarria iruditu zitzaidan. Euskaldun izateak lotsatu ninduen, lehenengo aldiz. Irakurri zenituen egunkariak?

***Miel Anjel Elustondo***








Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ZELEDONen beste jaitsierak

**Abuztuak 4, arratsaldeko seiak. Gasteiztar gehienek Andre Mari Zuriaren Enparantzara jaisten ari den Zeledonengana zuzentzen dute beren arreta, bera baita hiriko jaiei hasiera ematen diona. Orain hainbat urtetatik hona, berriz, San Migueleko dorretik abiatzen den Zeledon ospetsua ez da bakarra. Izan ere, badira beste Zeledon batzuk ere jai giroa hiriko beste zenbait tokitara daramatenak.**

**Gamarra eta Mendizorrotzako udal igerilekuek eta San Prudentzio Zahar-etxeak, besteak beste, beren zeledon-panpinak dituzte, baita Zeledon pertsonaia bera ere; hala kirol guneko langileren bat, nola agure zaharren bat. Kasu guztietan emaitza bera da: jaiak eta algarak nagusitzen dira beste edozeren aurrean.**




## San Prudentzio Zahar-etxea

Frantzia kaleko San Prudentzio Zahar-etxeak 1991an ospatu zuen lehendabiziko aldiz Zeledonen jaitsiera. Orduko hartan bertako langileek egin zuten egoitzako teilatutik behera botatako panpina. Ideia horrek arrakasta izugarria izan zuenez gero, ekimenari eustea erabaki zen eta hurrengo urterako Udalak Zeledon bat eman zien.

Aurten Zeledonen seigarren jaitsierari ekingo diote. Egoitzako bostgarren solairutik Zeledon jaisten den bitartean, bestetan bezala, fanfarre batek musikaz

axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

IVAN
TABERNA

GORBEA 37



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

> **“San Migueleko dorretik abiatzen den Zeledon ospetsua ez da bakarra”**

alaituko ditu bertara hurbildutakoak. Gainerakoan, Gasteizen baino zertxobait lehenago, dantza eta jaia nagusi dira giroan.

Bertako 270 lagunen bizitokia jaiak hartzen du. Blusa lagun-taldeak, fanfarreak, Udal Musika Banda, erraldoi eta buruhandiak, e.a. izango dituzte bisitari ondorengo egunetan eta beraiek ere jotak entzutera, zezen-paseiloa ikustera edota barraketara joateko ibilaldiak antolatzen dituzte.

Azken egunean, arratsaldeko bostetan, Zeledon Zahar-etxeko zerura igotzen da berriro, jaiei amaiera emateko. Hala ere, nahi dutenek beste zortzi orduz dasta dezakete jai giroa.

## Mendizorrotza eta Gamarra

Txanpaina, puruak, jai-zapiak... eta bainu-jantzia jaiak hasteko. Udal igerileku hauetan Zeledon bana jaisten da Jaietako ofizialarekin batera, honako hauek zaindarien uniforme bera jazten dute. Seietan, puntu-puntuan, lankide batek txupinazoa pizten du eta Zeledon egoitza nagusiko teilatutik abiatzen da kanpoko dutxa-pasagune bateraino. Han, Andre Mari Zuriaren Enparantzan bezala, Gasteizko ikurrin batek hartuko du.

Mendizorrotzako igerilekuak 1976an ireki ziren eta urte hartan bertan suziriak bota ziren jaien hasiera ospatzeko. Handik urte gutxitara, langile bat Zeledon gisa agertu zen bainularien algararako. Izandako harrera on hari esker, igerilekuko zuzendaritzak ospakizuna ofizial egitea erabaki zuen udal ordezkariekin hitz egin eta gero.

Dagoeneko 1500 lagun biltzen dira urtero Mendizorrotzan Zeledonen jaitsiera zelai berdean etzanda edo uretan sartuta ikusteko eta egun “ospakizunak bere horretan irauten du bainulariek horrela nahi dutelako”.

Azkenengo urteetan ‘Los Biznietos de Celedón’ fanfarreak hartu du Mendizorrotzako jaitsieran jotzeko erantzunkizuna eta hurrengo egunean Gamarrara joaten da goiza alaitzeko asmoarekin. Blusa koadrilaren batek ere Jaien oihartzuna igerilekuetara eramaten du bazkaltzera edo atseden pixka bat hartzera bertara joaten baitira. Jaien bukaera ez dator bat amaiera ofizialarekin. Igerilekuetakoa arratseko zortziretan izaten da. Denbora nahikoa hemen ere agur bikoitza ospatzeko.

**Edu Lopez de Luzuriaga**






Cercas Bajas
kaleán


VITORIA - GASTEIZ

GASTEIZ
BODEGA
Jose Mardones, 12

ARGI-INSTALAZIOAK
TENTSIO BAXUKO MONTAIAK
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
EDUARDO MTZ. DE ANTOÑANA
ELEKTRIZITATEA
Cola eta Goiti kalea, 4 - 1.
Tfnoa: 28 14 44
01003 GASTEIZ


kafetegia
taberna
ALDAPA
SAN VICENTE
aldapa
GASTEIZ




GASTEIZ
PIPERMINA
DENDA
arropa
eta
osagarriak

KUTXI, 81




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## BLUSEK ANIMATZEN DITUZTE ANDRE MARI ZURIAREN JAIAK MENDE HASIERATIK

# kaleko alaitasuna



ezin da zehaztu zein urtetan ageri ziren blusak Gasteizko jaien ezaugarri gisa. Horren inguruko argibideak nahasi xamarrak izan arren, gazte horiek 1900aren inguruan biltzen hasi zirela uste da. Garai hartako berriek diotenez, zezen-hiltzaileak plazaraino eramaten zituzten ibilgailuen atzetik ibiltzen omen ziren blusak, "zahatoak aldean zituztela, blusa zuriak eta zapiak astinduz eta kanta herrikoiak denen artean abestuz". Udaleko Musika Bandan (Jose Eskoriaza gidaritzapean) ibiliak omen ziren blusa haiek eta zezenketak edo kalejirak (zezenketara joatekoak eta handik etortzekoak) ziren bitartean baino ez zuten blusa soinean.



**MENDE BERRIAREKIN** batera, gizarte eta herri-fenomeno aparteko bat mamitzen hasi zen gero gasteiztarron bereizgarria izango zen jantziaren inguruan.

Norbere baitatik sortzen da blusa izateko grina; gero eta gehiago dira jantzi hori soinean dutela, jaiak animatu nahiean dihardutenak. Hala ere, blusasenak badu aintzindari bat, 1887koa, hain zuzen. Honela dio garai hartako agiri batek: "Buruan txapel gorriak zituztela, zenbait mutilek dantza egiten zuten zezenketak animatzen zituzten bitartean, Gasteizko zezen-plaza zaharreko 8. eta 9. harmailetik". Postas, Fueros eta Olagibel kaleen elkargunean zegoen zezen-plaza hura.

Hogeiko hamarkadan gertatu-

zure egoitza berria Lejarreta kalean
HEGOALDE euskaltegia
Jose Lejarreta, 9 behea
tfnoa 28 41 96 01003 GASTEIZ

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK
zurbeltz
MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

riko zerbait funtsezkoa izan zen blusa zabaltzeko eta gasteiztarren ohituretan tinko sustraitzeko. Hain zuzen ere, 1922an Gasteizko merkatari batzuek, besteak beste, Lino Ortiz de Latierrok, José Maria Urrutiak eta Vicente Murgiak, makina bat blusa saldu zieten Gasteizko gazteei. Hori zela eta, jaiak iritsita, blusaren erabilera orokortu zen gasteiztarren artean.

**“1945ean hasi zen ospatzen Blusaren eguna”**

Garai hartan langileek zerabilten blusa; kolorea lanbidearen ezaugarria zen. Blusa zuria pintoreek eta arotzek zeramaten; beltzak ikazkinek; urdina, udal azokako langileek; eta grisa, marraduna nahiz laukiduna izan, harakinek.

## MUTILEN ARTEKO BATASUNA

Mende honen lehenengo laurdenera arte, bat eginik aritzen ziren blusak: horixe zen



beren ezaugarririk behinena. Halere, ez zeuden antolaturik elkarte gisa; era berean, ez zuten ez txarangarik ez eta pankartarik ere. Denen artean, pankarta bakar bat zerabilten; “Los del tendido 6” irakur zitekeen bertan. Haren babespean zebiltzan blusek bat egiten zuten Udaleko Bandaren atzetik zihoan jendearekin

Dato kaletik igarotzean, hango mahaitxoetan kafea patxada osoz hartu eta gero. Gaueko 9etatik aurrera, zezenketatik itzulia eginda eta dotore jantzirik, hirian zehar sakabanatzen ziren, bere gizarte- mailaren arabera. Horrela, orduko blusek leku hauek zituzten gogokoen: Circulo Vitoriano-a, Nuevo Club-a, Casino

Artista eta Florida parkea (zehatzago esanda, kioskoaren inguruko dantzaldiak).

**“70eko hamarkadan inoizko bultzadarik hartu zuten blusen taldeek”**

Musikaren eta folklorearen bidez kalejirei jai eta herri-giro haundiagoa emateko, Genaro Rey Gasteizko Guarnizioko Gipuzkoako Infanteria Erregimentuko Bandako zuzendariak abesti bat oparitu zien kalejira lagun zituen mutil xelebreei. Era berean, “Gasteizko Tanborrada” ere berak egokitu zuen musikabandek eta txistulari-taldeek jotzeko; orduko gazteek bere egin zuten musika-lan hura.

## BLUSEN AURRENEKO TALDEAK

1925era arte itxaron behar izan genuen izena zuen aurre-




*Begiradarekin liluratzeko diseinuak. Zure estiloari doazkion moduak. punta puntako modaren xarma.*
*Multiopticasen Ducci '96ko, bilduma esklusiboa da.*
*Eguzki lente graduatuekin, zure beharren arabera.*
*Hurbil zaitez eta ezagutu ezazu.*




*Gure mailegu txartelarekin ordain ezazu*
***3 hilabetez kargurik gabe***

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Ama Zuriaren Plaza / Olagibel 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

neko blusa-taldea Gasteizko kaleetara azaldu arte. Haren izena: "El Himeneo"; Arabako kirol lehiaketetan ziharduen futbol taldeko jokalariek osaturik zegoen. Marrokoko gerraren gudari ohiek eta kaltetuek bigarren blusa-talde ofiziala sortu egin zuten. "El Himeneo" eta "Abdelkrin y compañía" blusa-taldeei esker, geroago sortu ziren blusa-taldeek non oinarritu izan zuten. Ondorengo urteetan, blusa-taldeen kopurua izugarri puztu zen, neurri batean, Udaleko jai-batzordetik eman zitzaizkion bultzadari eta babesari esker.

1936an, ordea, jaien egitaraua osaturik eta blusen-taldeak kalerantz abiatzeko gerturik zeudela, estatu-kolpe militarrak blusen ibili distiratsua eten zuen, jaiak ez baiziren ospatu hurrengo bost urteetan. Bost urte geroago, 1941ean, blusak berriro ziren kalean Jose Lejarreta Gasteizko alkateari esker.

Blusenganako agertu zituen ardura eta grina zirela eta, "blusen alkatea" ezizen atsegina ezarri zioten. Izen horrekintxe iritsi da gure egunetara.

Urte hartatik aurrera ugaltzen hasi ziren blusa-taldeak eta laster hogeita hamar blusa-talde baino gehiago osatu ziren, oraingoek beste partaide ez bazuten ere. Hona, bada, garai hartako izen batzuk: "Los Barbis", "Los nietos de Celedón", "Los tromperris", "Los de la plaza de la sartén", "Los chispas", "Los del Mentirón", "La interrogación", "Los hijos de la Claudia","No les miren que se caen", "Los Globos", "Los boinicas","Los feos", "Los goteras", "Los de siempre", "Los isleños de Aramangelu", "Los despitaos" edo "Los amigos del sereno" (danbolinari eta eztarriari eraginez gorpuztu zen blusa-taldea).



## JAIEN ETENALDIA

Jaien egitarauetan blusak azaltzen hasi ziren, baita horien azaleko orrialdeetan ere, Obdulo López de Uralde margolariaren lanei esker. 1953an eta hurrengo hiru urteetan, Udalak jaien egitarauaren barruan ezarri zituen honako aipamen hau eginez: "Blusen taldeek jaiak piztuko dituzte beren kultur ohoragarriaren arabera".

> **"neska blusen taldeak egon izan dira ere: lamiak, sorginak eta neska ausartak"**

Bi urte geroago, 1945ean, Blusaren Eguna ospatzen hasi zen, Andre Mari Zuriaren jaien iragarle gisa. Aldi berean, blusa-taldeen elkartea osatu zen estraineko aldiz. Urte batzuk beranduago, ordea, berriro eten zen blusen ibilia. Izan ere, blusek erabaki zuten 1948an jaietan ez parte hartzea, aurreko urtean zezenplazako agintariekin zenbait tirabira izan zituztela eta.

Jaien etenaldiak sei urte iraun zuen, 1954ko udara arte, hain zuzen. Orduan, blusen belaunaldi berri bat sortu zen eta, horrekin batera, blusentalde berriak eratu: "Los tímidos", "Los txismes", "Los cachorrillos del 6", "La Flor de la Rioja", "Los Desiguales", "Los Silenciosos" eta "Los Bainas". Azken hiruok oraindik ikus ditzakegu gure kaleetan zehar. 1946tik ez zen berriro antolatu Blusaren Eguna. Aldiz, hurrengo urtean, 1955ean, ospatu zen, hirugarren aldiz ospatu ere.

1970an eta 1976an ere eten zen blusen ibilia, gainerako hiritarren irizpideekin bat ez etortzeagatik eta martxoaren 3ko gertakari lazgarriak (gogoratu horien ondorioz bost langile hil zirela) salatzeagatik, hurrenez hurren.

Halere, 70eko hamarkadan inoizko bultzadarik handiena hartu zuten blusen taldeek; gero eta garrantzitsuagoak ziren Gasteizko jaietan. Garai hartan, duela 25 bat urte, gaur egungo jaiak alaitzen dituzten blusa-talde asko sortu ziren. Orduantxe munduratu ziren partaide guztiak emakume zituzten bi blusa-talde ere: "Lamiak" eta "Sorginak". Bizitza laburra izan zuten neska-talde horiek. Handik urte batzuetara, 1989an horrelako beste talde bat sortu zen: "Neska ausartak" izena zuen eta ez zuen aurreko neska blusen taldeek baino gehiago iraun, bi urteren buruan desegin baitzen.

**Inaxio Lopez de Arana**

EDAN • JANTEGIA
Oleaga
Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak
ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

AMILAMIA
arropa eta osagarriak

PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# jai egunetako negozioak

Udan bete betean sartuta gaude. Eguzkia, jaiak eta oporrak urtaro honek berarekin dakartzan osagarri batzuk dira. Jaiak eta uda, uda eta jaiak horra hor banatu ezin diren bi elementu. Imaginatzen duzue uda bat jairik gabe? Bai auzoetakoak, bai herrikoak, bai hiriburukoak ere udan ospatzen ditugu. Egun hauetan aspertzeko asitirik ez dago. Abuztuan 4tik 9ra Andra Mari Zuriaren jaiak ditugu, Gasteizkoak. Egun horretan urrutiko senideak eta beste lagun askok bisitatzen gaituzte, jaiari behar duen giroa emateko. Mendizabalan artesania saltzaileak, kaleko musikariak... Oraingoan haiengana jo dugu GEU Gasteizkook.



**GASTEIZKO JAIETAN** artisauek eta artesania saltzaileek oso leku ezaguna eta bisitatua dute. Jaiaren erdian, Becerro de Bengoa kalean kokatzen dituzte beren erakus-postuak. Azoka berezi honek herrialde ezezagunenetik hasi eta ezagunenetaraino eramaten gaitu. Becerro de Bengoa kaleko bi espaloiak egun horietan jendez gainezka izaten dira.

"Gasteizko jaiak guretzat oso garrantzitsuak dira, egun horietan jendeak dirua errazago gastatzen baitu. Guretzat Gasteizko jaiak eta Gabonak dira salmentarako garairik onenak" esan digute Isabel eta Joseba Gasteizko bi artesania saltzailek. Kale honetan horrelako saltoki bat jartzeko Udalak banatzen duen lizentzia aurrez eskuratzea beharrezkoa da eta horretarako 15.000- 20.000 pezeta inguru ordaindu behar izaten da. Gasteizko saltzaileek kanpokoen aurrean lehentasuna izan arren, Udalak zozketatu egiten ditu postuak, guztientzat ez baita lekua izaten. "Udalari bidea errazteko artesania saltzaileok EKI izeneko elkartea sortu dugu. Momentuz 22 saltzaile gaude eta denak batera aurkezten gara zozketara" esan digute Isabel eta Josebak. Saltzaileek beren postuak abuzturen 4tik 9ra jartzen dituzte baita Santiago egunean ere. "Egun horietan jo ta ke iharduten dugu lanean goizeko 10etatik gaueko 3ak arte. Lur jota bukatzen dugu eta ez dugu parrandarako astirik izaten, baina honetaz bizi garenok ez dugu beste erremediorik jaietan ateratzen baitugu diru gehien. Ordu asko sartzeaz gain egun hauetan kontu haundiarekin ere ibili behar dugu batzuetan lapurketak izaten baititugu".

"Gu ere jaiaren parte bat gara jaiari bizitasuna ematen baitiogu. Egia da batzuetan jendeak litzentziarik gabe jartzen duela bere saltokia, baina gutxitan gertatzen da hori oso kontrolatua dago eta. Baimena begibistan eduki behar izaten da puestoan" dio Isabelek. Jaiak iristeko zain irrikitan daude Joseba eta Isabel baina, bitartean, Santa Barbara enparantzan jarraituko dute San Migel dorretik jaitsiko den Zeledonen zain.

## Jira eta bira, gora eta behera

Jaietan beste gune garrantzitzua feriena izaten da. Medizabala bost egunetan zehar kolore eta iskanbilaz janzten da. Han barrakak, tonbolak, tiroa edo zirkoa aurki ditzakegu: alaitasun eta kolore biziz beteriko mundua. Gasteizko jaiak baino lehengo Ariznabarran egiten diren jaietara jo dugu. Bertan, oso ezaguna eta maitatua den Tren Txu-Txura joan gara eta han Jose Manuel aurkitu dugu trenmakinari azken ikutuak ematen, olioa botatzen. "Feria asko aldatu da azken urteotan, gero eta eskakizun haundiagoak ditugu, bai Udalaren aldetik, bai gure sektorearen aldetik ere, oso konpetentzia haundia dugu eta". Duela urte batzuk adin guztietako jendea etortzen zen: gazteak, umetxoak, adinako jendea... baina gaur egun ez da horrela, gazte jendeak leku asko dituelako ondo pasatzeko: tabernak, diskotekak... eta feria piskana-

IRUSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

Quetzal
HegoAmerikako jantziriK ederrenak
PINTORERIA kalea • S. Franciscoren kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



ka hiltzen ari da" dio kezkati Jose Manuelek. "Feriante izateko feria barruan jaioa izan behar duzu. Hemen gehienok gure arbasoen tradizioa jarraitzen dugu eta edonork ezin du jasan gure lan erritmoa. Egun batean muntatu eta hurrengoan berriz dena desmontatu behar. Hemendik hara, batetik bestera ia lorik egin gabe ibiltzen gara familia osoarekin: anaiak, arrebak..." aitortu digu Tren Txu-Txuko arduradunak. Azken urteetan hiritik kanpo atera dira feriak eta Andra Mari Zuriaren jaietan Mendizabalan kokatzen dira barrakak. "Guretzat hau izagurrizko kaltea izan da, diru asko ordaintzeaz gain kanpoaldera atera gaituzte. Feriak nahi dituzte bai, baina hiri erdigunetik kanpo eta honera jende gutxiago etortzen denez prezioa igo behar izaten dugu. Bizitza garesti dago eta Udalak prezioak igotzen badizkigu, geuk ere igo egin behar ditugu. Leku guztietan gauza bera kobratzen da gainera" dio Jose Manuelek. Gasteizko auzoetan dabiltzan ferianteak beren atrakzio ugariekin (txurreria, tiroa, autotxokeak eta abar...). familia edo talde bat osatzen dute. Baimenak eta eskakizunak lortzeko ordezkari bat izendatzen dute denen artean eta Jose Manueli dagokio azkenaldian eginkizun hori. Feriante izena gustoko du Jose Manuelek "barrakero hitzak konnotazio txarra du eta guk gure bizitza prestutasunez ateratzen dugu aurrera". Bi egun pasa eta gero karabana bitxi hau aldegiteko prest egongo da. Bere urteroko ibilbideari jarraituz Zaragoza eta Barna aldera joko dute hemendik. Ondoren, berriz honuntza hurbilduko dira: Bilbora eta Gasteizko Alde Zaharra, Adurza eta Lakua auzoetara besteak beste.

**Karlos Fdz. de Betoño**

# Jaietan

Jendeak ez dauka beste gauzarik buruan: oporrak, oporrak eta oporrak. Baina beste askok abuztuan, eta bereziki jaietan, lan egin behar izango dute; ez dute parrandan ibiltzeko astirik izango. Festa egun hauetan lanean jardungo dutenekin, lan bereziak egiten dituztenekin egon gara. Bost egun horietan beren egin beharrak zein diren azaldu dizkigute.







## SUHILTZAILEAK

**JAIETAN** edozein ateraldi egiteko beti prest egoten dira. Joseba suhiltzaileak esan digunez gogorra gertaten zaio jaietan lan egitea: "Beti erne egon behar dugu. Festatan arrisku gehien daukaten gunetan prebentzio lanak egiten ditugu eta zu lanean zauden bitartean besteek nola gozatzen duten ikustean jaietarako gogoa sortzen zaizu". Ez da jaietan lan egiten duen lehenengo aldia eta lan aldetik ez du aldaketa handirik ikusten. "Hemen barruan beste egun arrunt batean bezala aritzen gara. Ez dago alde handirik". Mintzatzen ari ginela, duela bi urte gertatu zena etorri zaio burura Josebari (gogoratu Zeledon jeitsi zenean izugarrizko euri jasa bota zuela), "Zeledon jaitsi orduko hasi zen euri zarrapada, eta tximistak eta trumoi ikaragarriak ekarri zituen ekaitzak. Balkoiak, tximiniak, zuhaitzetako adarrak... nahiko gogorra izan zen, desastre bat... Ezin izan genuen leku denetara heldu eta jendearen laguntza oso baliagarria izan zen".

## AUTOBUS GIDARIAK

**IKUSI AL DUZU** inoiz autobus bat blusez beteta? Jaietako irudi berezi horietako bat da hori eta Jose Acosta gidaria horrela mintzatu zaigu: "Jaietan ondo pasatzen dugu. Lanean zaude baina autobuseko giroa berezia izaten da. Blusekin ondo moldatzen gara, gehienetan "gamberro" bat edo beste egon arren"

Hamaika urtetan festak autobusean ezagutu dituen gidari honek jaiak beste modu batean gozatzen dituela esan digu: "Lan egin behar baduzu, bukatu ondoren bueltatxo bat ematera ateratzen zara, baina autobusean zaudenean dena kristaletik ikusten duzu eta horrek enbidia ematen dizu".
Jende gehiagok erabiltzen du autobusa egun hauetan. Gainera, linea berri batzuk eta ordutegi bereziak ere antolatzen dituzte: "Jende asko Sansomendira edota Abetxukora autobusez joaten da".

Xabier
taberna
musika ona eta giro ezinhobea
Kutxileria 23

vitrales
MIKEL DELIKA
BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

bar restaurante albéniz
Portal del Rey 9
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# eta lanean

## TABERNARIAK

**DENOK DAKIGU** taberna bat gobernatzea ez dela lan erraza izaten eta kasu askotan gogorra ere bilakatzen dela, are eta gehiago jaietan.

Pedro Orbea kaleko taberna batera abiatu gara. Alde zaharretik edo hiri erdigunetik kanpo dagoenez ez dirudi hainbesteko lanik izango dutenik. Baina usteak erdia ustel berriz ere: "Lan ikaragarria egiten dugu jaietan" baieztatzen digu Javi Iduya tabernako jabeak. "Nik, adibidez, hemen ematen dut egun osoa. Bi ordu besterik ez dugu ixten, dena txukuntzeko eta lo pixka bat egiteko".

Lan hau hasieran gogorra egiten bazitzaion ere orain oso gustora ari da. "Lehenengo urtean oso gogorra izan zen niretzat, jende guztia parrandan eta zuk barra atzean egon behar. Orain, jada, ohituta gaude. Gainera, gure erara, oso ondo pasatzen dugu, zeren azken finean guretzat ere jaiak baitira". Oso argi dauka jaietan lan egin behar duela, egun horiek aprobetxatu behar dituela negozioari eusteko. Antza denez, ez dio horrek gehiegi kezkatzen: "Guk jaiak pasa eta gero egingo ditugu gure festak" dio Javik.





## OGIGILEAK

**URTEAN ZEHAR** esnatzen garenerako ogia prest izaten dugu lanera joateko edota etxean gosaltzeko, eta jaietan ere horrela gertatuko zaigu. Gau luze baten ondoren, gainera, inoiz baino hobea izaten da gozeko ogia. La Vitoriana-n lan egiten duen Fernando Antiarekin hitzegin dugu, bera banatzailea da eta ez dio grazia askorik egiten jaietan lan egiteak: "Kriston putada da. Niretzat aldaketa handia izango da zeren beti egon bainaiz lanik gabe eta aurten izango da jaietan lan egin behar izango dudan lehen aldia".

Lantegian txandaka lan egingo dute, horrela jaietarako denbora ere izango dute. "Bai, hori ziur, baina hurrengo egunean lan egin behar baduzu... kontu gehiagorekin ibili behar duzu".

Beren lana ez da ogia egitearekin bukatzen, gero banatu eta saldu egin behar da. Denda guztiak irekita izango dituzte. Hala ere, urtean zehar baino jende gutxiago egongo dela uste dute.

## TAXISTAK

**ABETXUKOTIK** erdialdera, hiriko erdigunetik Sansomendira, ondoren barraketara... horrelaxe ibiltzen dira taxistak festetan, batetik bestera. Festetako giroa kotxe barrutik ikustearekin konformatu behar. Lan horretan 25 urte daramatzan Prudentzio Fdez. de Betoñorekin hitz egin dugu eta berak aitortu digunez ez dio axola jaietan lan egitea. "Ez dago beste erremediorik. Taxista baten bizitza oso gogorra da eta jaietan diru pixka bat gehiago ateratzen duzu. Horrexegatik, jaietan lan egitea merezi du".

Horrelako egunetan bere lanean gertatutako bitxikeria zenbait ere kontatu dizkigu: "Jende asko taxira sartzen da eta ez du gogoratzen non bizi den ere. Beste batzuek helbide bat esaten dizute eta heltzen direnean konturatzen dira ez zutela bertara joan nahi". Bere ustez, jendeak jaietan gehiegi edaten du, bai gizonek baita emakumeek ere".




**David Alvez**

jaietan... ondo pasa!!
OLARIZU MENDI
HERRIKO TABERNA
JOSE URUÑUELA KALEAN
IRUBIDE
HERRIKO TABERNA
RAMIRO DE MAEZTU KALEAN
ALDEZAHARRA
"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN
Gasteizko Herriko Tabernak



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Euskal doinuak Gasteizko jaietan





**U**da, beroa, oporraldia, jaiak... Abuztuan gureak, Gasteizko Adre Mari Zuriaren Jaiak. Protagonista nagusienetako bat musika izango da hiriko leku askotan. Jai egun hauetan musika estilo desberdin ugari entzun ahal izango dugu eta, urtero bezala, euskal musikazaleentzako toki berezi bat izango da: Matxete Enparantza. Hantxe, Exkixu, Imuntzo eta Beloki, Lugarri, Mikel Markez eta Trabuko entzungai izango ditugu. Eskaintza zabala, inondik ere! Zeuk aukeratu!

**GEHIENONTZAT UDA** opor garaia bada ere ez da horrela musikarientzat. Izan ere, Gasteizen urtero negua hotza eta gogorra izaten da eta are gehiago musikan aritzen diren horientzat. Udan, aldiz, jende gehiena eguzkitan lasai dagoen bitartean eurak lanean aritu behar dute, neguan izoztuta egon diren musika tresnak berriz afinatzeko garaia heltzen baitzaie. Jaiez jai jardutea, horixe dute gure taldeek bizirik irauteko irtenbide bakarra. Diskoaren aurkezpena eta zuzeneko kontzertuak dira, biniloan eskaintzen digutena benetazkoa dela ezagutzeko parada.

Txosnak eta Matxete Enparantza; Matxete Enparantza eta txosnak: horra hor gure musikari eta musikazaleei loturik dabiltzan bi leku. Bi gune horiek Euskal Herriko musika arloan zer gertatzen ari den jakin nahi duenarentzat aukera ezin hobea eskaintzen dute.


UDABERRIA
elkartea

•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat

•Musika eskola
•Dantza

Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

TXYSTA
TABERNA
ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ




eguneko menua




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## Exkixu

Nahiz eta hasiera gogorra izan Gernikako seikote hau ez da krisialdiaren eragina gehien pairatu behar izan duen taldea. Kostata lortu zuten Bizkaiko mugak apurtzea eta lehenengo diska bikaina zertuarren kontzertuak ez zitzaizkien ailegatu eurek espero zuten neurrian. Azkenik taldearen indarrak eta "Sua Sua" kantak konbentzitu gintuzten. Abestia gure gaur egungo musikan ezinbesteko bihurtu da.

Egun, bidea zabalik dute. Beren bigarren lanak ez zuen oztopo handirik gainditu behar izan gure belarrietaraino iristeko. Ondorioz kontzertuak ez zaizkie faltako. Hurrengo bat Gasteizko jaietan izango da, hain zuzen ere.

Badakizu, beraz, abuztuaren 4ean Matxete Enparantzan, Exkixuren rock latza eta indartsua betiko tradizioz tindatuta.

## Mikel Markez

Exkixu taldekoek baino gaitzagoa izango du honek, gehien bat Mikel Markezek eskaintzen duena ez bait da izaten jai garaietarako espero ohi den musika. Berarena lasaiagoa datorkigu, jarratzaile gutxiagoarekin, entzule zehatzik gabe.

Mikel Markez gure bakarlari gazteenetariko bat dugu, euskal musikaren barnean oraindik bere bidea egin eta bilatzen ari dena. Baina, kontuz! Ez kalitatea falta zaiolako, baizik eta berak lantzen duen musika mota maite dutenek zintzo eusten dietelako betiko kantari zaharragoei.

Aurreneko bi belaunaldietako bakarlariek bere lekua topatu zuten. Gaur egun inork ez dio uko egiten Benito Lertxundi edota Mikel Laboaren lanari, ezta 80ko hamarkadan musikarako jaiotako Ruper Ordorika eta Gontzal Mendibilek egindakoari ere. Orain arte horien ondoan bizi izan duen "gonbidatuaren paper" hori ahaztuz gero, mende bukaerak Markezena izan beharko du. Bere alde abesti onak eta erritmo dotoreak aipa daitezke. Eta abuztuaren 7an Euskal Herriko musika munduan leku inportante bat dagokiola erakusteko beste aukera bat izango du Gasteizen.

**Txabi Arnal Gil**






# egitaraua





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ARRATSALDEZ

**✔ 6etan**

ANDRE MARI ZURIAREN PLAZAN

96ko jaiei hasiera emango dien **Suziria**ren jaurtiketa eta Zeledonen jaitsiera.

**✔ 6:30etan**

FORU PLAZAN (PILOTALEKUA)

**Esku pilota:** Andre Mari Zuria saria.

**✔ 6:45etan**

UDALETXEA, AGIRRE LEHENDAKARIA KALEA, POSTA KALEA ETA ANDRE MARI ZURIAREN PLAZA

**Udal Segizioa,** erraldoi eta buruhandien konpartsarekin. Udal Folklore Akademiako gaitajole banda eta beste hauek: Indarra, Eltziego, Ezberdinak, Erletxo, Goizerdi eta Biasteri. **Bezperak**, San Migel parrokian. **Andre Mari Zuriari loreak eskaintzea eta Salbea.**

**✔ 7etan**

PRADOKO PARKEAN

Dantzaldia: **Jaitxo taldea.**

AIHOTZ PLAZAN

Dantza: **Ortzadar** taldea, "Soinudantza".

SANTA BARBARA PLAZAN

Musika-giroa: **Biasteriko Txaranga**

AMÁRICA PLAZAN

Musika-giroa: Lantziegoko txaranga.

**✔ 8etan**

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Salvador Colladok Fernando Guillen aurkezten du: Mario Vargas Llosaren **"Pantaleon y las Visitadoras".**

**✔ 8:30etan**

AIHOTZ PLAZAN

**Dantza Plazan:** Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaitajoleekin.

# GAUEZ

**✔ 10etan**

ERDIALDEKO KALEETAN

**Farolen Prozesioa.**
11etan
Principal antzokian
Salvador Colladok Fernando Guillen aurkezten du: Mario Vargas Llosaren **"Pantaleon y las Visitadoras".**

**✔ 11:30etan**

GELTOKIAREN PLAZAN

Gau-jaia: **Magnum Show orkestra**

AIHOTZ PLAZAN

Kantaldia: **Eskixu.**

OLAGIBEL KALEAN

4 **Zezensuzko** eta musika-giroa: Biasteri eta Lantziegoko txarangak eta Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreak.

**✔ 12etan**

FORU PLAZAN

Kontzertua: **Mikel Erentxun**

FLORIDAKO PARKEAN

Karaokea, Canal Gasteizek antolatua

**✔ 12:30etan**

PLAZA BERRIAN

**Cotton Club Big Band** orkestra eta baleta.

PROBINTZIA PLAZAN

Rancherak: **Francisco Rivelles** eta **Alegria Ranchera** mariatxia.

**✔ 11etatik goizeko 3etara**

**Musika kaleetan:** Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreak eta Lantziego eta Biasteriko txarangak, erdialdean eta Alde Zaharrean barrena.




## Igor Glez. de Galdeano

### txirrindularia



"Niretzat jaiak oso lasaiak izaten dira. Iaz Burgosko itzuliarekin bateraizan ziren eta egun bat besterik ez nintzen egon jaietan. Aurten espero dut Gasteizen egotea festetan".
Profesional mailako txirrindulari izatea eragozpen handia da jaietan ibiltzeko: "Lehen gazte eta afizionatu mailan nengoenenan zertxobait ateratzen nintzen baina orain zailagoa da. Arratsaldean ateratzen naiz eta gauez etxean geratu behar izaten dut".
Berarentzat jaietako unerik politena Zeledonen jaitsiera izaten da, "une hori hunkigarria da izugarrizko giroa sortzen da eta". Beste hirietako jaiak ez ditu ezagutzen baina Gasteizen oso giro ona eta martxa handia egoten dela iruditzen zaio.




azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51
ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ
Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu
GASTEIZ
INPRIMATEGIA

MIKO
izozkiak



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GOIZEZ

**✔ 7etan**

ERDI AROKO HIRIGUNEAN ETA ANDRE MARI ZURIAREN PLAZAN

Egunsentiko errosarioa eta prozesioa.

**✔ 9etan**

PLAZA BERRIAN

**Dianak, Udal musika banda, Udal txistulari banda, Aldundiko txistulari banda, Indarra, Eltziego, Ezberdinak, Erletxo, Goizerdi, Biasteri** eta **Udal Folklore Akademia**ko gaitajole bandak **Biasteri**ko eta **Lantziego**ko Txarangak eta **Gesaltza** fanfarrea.

**✔ 11etan**

ZEZEN PLAZAN

Zekorrak.

# EGUERDIAN

**✔ 12etan**

ZEZEN PLAZATIK

Kalejira: **Arabako Trikitixa Elkartea**

ANDRE MARI ZURIAREN PLAZA, ZAPATARI KALEA, ARRIAGAKO ATEA, AHATE-ITURRI, JESUSEN ZERBITZARIEN KALEA, DIPUTAZIO KALEA ETA PLAZA BERRIA

Erraldoi eta Buruhandien konpartsa.

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Gargantua.

VICENTE GOIKOETXEA KALEAN

Pailazoak: **Kiki, Koko eta Moko** (euskaraz).

FORU PLAZAN

HERRI-KIROLAK.

**✔ 12etatik 14etara**

AIHOTZ PLAZAN

Trikitixa: Gasteizko Trikitixa Eskola.

**✔ 1:30etan**

AIHOTZ PLAZAN

Bertsolariak: **Andoni Egaña, Jon Sarasua eta Aitor Mendiluze.**

# ARRATSALDEZ

**✔ 4:45etan**

PLAZA BERRITIK ZEZEN PLAZARA

Zezenetara joatea.

**✔ 6etan**

VICENTE GOIKOETXEA KALEAN

Jotak: **Vega Ahizpak**

FLORIDAKO PARKEAN

Haurrentzako animazioa: **Fantasias Magicas** (erdaraz).

ZEZEN PLAZAN

Abonuko lehen zezenketa. Louro Fernandez de Castroren abeletxeko zezenak, Manuel Díaz "El Cordobés", Javier Conde eta Cristina Sánchez zezen-hiltzaileentzat.

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

**Txiste lehiaketa umeentzat.** Antolatzailea: Canal Gasteiz

**✔ 6etatik 8etara**

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Gargantua

**✔ 6:30etan**

AMÁRICA PLAZAN

Jazza: **Iñaki Askunze trio**

PRADOKO PARKEAN

Dantzaldia: **Jaitxo taldea**

AIHOTZ PLAZAN

**Txistulari** kontzertua.

**✔ 8etan**

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Salvador Colladok Fernando Guillén aurkezten du: Mario Vargas Llosaren **"Pantaleón y las Visitadoras".**

**✔ 8:30etan**

ZEZEN PLAZATIK PLAZA BERRIRA

Zezenetatik itzultzea.

AIHOTZ PLAZAN

**Dantza Plazan**: Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaitajoleekin.

# GAUEZ

**✔ 11etan**

ARRIAGAKO SAN JUAN PARKEAN

1. su artifizialak, Turis pirotekniaren eskutik.

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Salvador Colladok Fernando Guillen aurkezten du: Mario Vargas Llosaren **"Pantaleon y las Visitadoras".**

**✔ 11:30etan**

AIHOTZ PLAZAN

Kantaldia: **Imuntzo eta Beloki**

GELTOKIAREN PLAZAN

Gau-jaia: **Hermanas Ross Orkestra**

OLAGIBEL KALEAN

4 **Zezensuzko** eta musika-giroa: Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreak.

**✔ 12etan**

FORU PLAZAN

Kontzertua: **Ketama.**

**✔ 12:30etan**

PLAZA BERRIAN

**Alkatraz Orkestra**

PROBINTZIA PLAZA

Salsa: **Habana conexion**

**✔ 11etatik goizeko 3etara**

Musika kaleetan, Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreekin, erdialdean eta Alde Zaharrean barrena.





## Begoña Muruaga

Begoñak ez ditu jaiak gehiegi atsegin, nahiago du horrelakoetan toki lasaiagoren batera ihes egin: "Ahal izanez gero aurten ere jaietan hemendik alde egingo dut. Ez naiz batere jai zalea. Lehen ere nire herriko jaietan-eta ez nuen parte hartzen"

Aurreko erantzuna ikusita normala denez, berak ez du ezer faltan izaten Gasteizko jaietan: "Urtean zehar ekitaldi ugari izaten dira, era askotakoak eta jaietan beti gauza berberak egoten dira. Horregatik nik jaietan ez dut ezer faltan botatzen". Hala ere, jaietan bere gustoko kantaldiren bat pozik entzungo luke Foru Enparantzan.

jo eta
TXAPELARRI
TABERNA
KUTXI kalean

EZ GALDU TRENA !
matrikula zaitez !
aek
Peru 8 22 60 50
Jose Mardones 8 26 35 40
Arana 30 25 24 00








Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## GOIZEZ

✔ **10etan**

PLAZA BERRIAN

**Dianak, Udal musika banda, Udal txistulari banda, Aldundiko txistulari banda, Indarra, Eltziego, Ezberdinak, Erletxo, Goizerdi, Biasteri** eta **Udal Folklore Akademia**ko gaitajole bandak, **Biasteri**ko eta **Lantziego**ko Txarangak eta **Gesaltza** fanfarrea.

✔ **10:30etan**

BABESGABEEN AUZOAN

Musika-giroa: **Biasteri**ko txaranga

ABETXUKO AUZOAN

**Lantziego**ko txaranga.

✔ **11etan**

ZEZEN PLAZAN

Zekorrak.

✔ **11etatik 15etara**

FORU PLAZAN (BOLATOKIA)

Bolo-jokoen erakustaldia: Andre Mari Zuria saria.

## EGUERDIAN

✔ **12etan**

ZEZEN PLAZATIK

Kalejira: **Arabako Trikitixa Elkartea**

FORU PLAZAN

Herri-kirolak.

BABESGABEEN AUZOAN

Erraldoi eta buruhandien konpartsa.

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Gargantua.
Vicente Goikoetxea kalean
Pailazoak: **Tutik ere Klown** (euskaraz)

AUZOETAN:

Musika-giroa: Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreak.

✔ **12:30etan**

FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN

Kontzertua: Udal Musika Banda.

AIHOTZ PLAZAN

Trikitixa: Legutianoko Pagoxueta Trikitixa Eskola.

✔ **Ordu batean**

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Txotxongiloak: **Kixka Antzerki Taldea** (euskaraz).

✔ **1:30etan**

AIHOTZ PLAZAN

Bertsolariak: **Xabier Arriaga, Joan M. Areitio eta Moises Enbeita.**



## ARRATSALDEZ

✔ **4:45etan**

PLAZA BERRITIK ZEZEN PLAZARA

Zezenetara joatea.

✔ **6etan**

Zezen plazan
Abonuko bigarren zezenketa. Montalvoko abeletxeko zezenak, José Miguel Arroyo "Joselito", Francisco Rivera Ordoñez eta Vicente Barrera zezen-hiltzaileentzat.

VICENTE GOIKOETXEA KALEAN

Nafarroako jotak: **Nagore Ahizpak.**

FLORIDAKO PARKEAN

Haurrentzako animazioa: **Chipilanda** (erdaraz).

✔ **6:30etan**

FORU PLAZAN (PILOTALEKUA)

**Esku Pilota:** Andre Mari Zuria saria.

SEFARAD PLAZAN (JUDIMENDI)

Lantziegoko txaranga.
Santa Barbara plazan
Biasteriko txaranga.

✔ **7etan**

MUSIKETXEKO LORATEGIAN (SAN ANTONIO KALEA, 14)

Ganbara musika: **Subito Camara Laukotea**ren kontzertua (haize-zurezkoak).

AMÁRICA PLAZAN

JAZZA: RAMON DIAZ CUARTETO PRADOKO PARKEAN

Dantzaldia: Jaitxo taldea.

AIHOTZ PLAZAN

Dantza: **Udal Folklore Akademia.**

✔ **8:30etan**

ZEZEN PLAZATIK PLAZA BERRIRA

Zezenetatik itzultzea.

AIHOTZ PLAZAN

**Dantza Plazan:** Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaitajoleekin.

## GAUEZ

✔ **11etan**

ARRIAGAKO SAN JUAN PARKEAN

2. su artifizialak, **Mediterranea** pirotekniaren eskutik.

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Enancar-ek aurkeztuta, Carlos Larrañaga: "¿Y ahora que?, Santiago Moncadarena.

✔ **11:30etan**

AIHOTZ PLAZAN

Kantaldia: **Lugarri.**

OLAGIBEL KALEAN

4 zezensuzko eta Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreak.

✔ **12etan**

FORU PLAZAN

Kontzertua: **La Frontera.**

✔ **12:30etan**

PLAZA BERRIAN

**Montesblancos** orkestra.

PROBINTZIA PLAZATIK

"Batucada"-Kalejira: **Samba Carnaval - Brasil.**

✔ **12:30etatik goizeko 3etara**

GELTOKIAREN PLAZAN

Gau-jaia: **Joselu Anaiak** (Okerrak blusa taldeak antolatua).

✔ **1:15etan**

PROBINTZIA PLAZAN

Salsa: **Samba Carnaval - Brasil.**

✔ **11etatik goizeko 3etara**

Musika kaleetan, Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreekin, erdialdean eta Alde Zaharrean barrena.



**Juan Antonio Compañón**

### 'Konpa'

**Zesta jokalaria**

Konpa jaietan betebetean murgiltzen den horietakoa dugu: "Blusez janzten naiz, duela bost urtetik hona Galtzagorri taldean bainago". Hala ere, kirolari guztiak bezala, bere burua zaindu beharra dauka. "Ezin naiz egunero atera, zenbait egunetan entrenatu beharra baitaukat. Hori bai, ateratzen naizen egun horietan *hasta reventar* ".
Jaietan oso gustokoak ditu "paseilloak", baina ez, ordea, ondoren egiten diren zezenketak. "Galtzagorrikoak eta ni neu ere zezenketaren aurkakoak gara. Jaietan blusen giroa atsegin dut, alde zaharrean sortzen den giro berezi hori, batez ere".


**ardatz** itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GOIZEZ

✔ **10etan**

PLAZA BERRIAN

**Dianak. Udal Musika banda, Udal txistulari banda, Aldundiko txistulari banda, Indarra, Eltziego, Ezberdinak, Erletxo, Goizerdi, Biasteri** eta **udal Folklore Akademia**ko gaitajole bandak, **Rioja Alavesa** txaranga, **Gesaltza** fanfarrea eta **Kortes**ko udal Musika Banda.

✔ **11etan**

ZEZEN PLAZAN

Zekorrak.

✔ **11etatik 15etara**

FORU PLAZAN (BOLATOKIA)

Bolo-jokoa: Andre Mari Zuria saria.

# EGUERDIAN

✔ **12etan**

SAN MIGEL PARROKIAN

Blusa txikien ospakizuna, Zeledon Txikirekin, eta **Lore-eskaintza,** Andre Mari Zuriaren aldarean.

ZEZEN PLAZATIK

Kalejira:**Arabako trikitixa Elkartea**

PLAZA BERRIAN

Kontzertua: Korteso (Nafarroa) Udal Musika Banda.

FORU PLAZAN

Herri-kirolak.

✔ **12:30etan**

ANDRE MARI ZURIAREN IRUDIAREN AURREAN

Ohorezko aurreskua, Zeledon Txikik eskainia.

FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN

Kontzertua: Udal Musika Banda.

AIHOTZ PLAZAN

Trikitixa: Amurrioko Trikitixa Eskola.

✔ **Ordu batean**

PLAZA BERRIAN

Suziriaren jaurtiketa eta Zeledon Txikiren jaitsiera, eta musika-giroa, Gasteiz fanfarrearekin.

✔ **1:30etan**

AIHOTZ PLAZAN

Bertsolariak: **Oihane Perea, Rikardo Gonzalez de Durana eta Dani Castaño.**

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Txotxongiloak: **BEHI BI*S** (euskaraz).

PLAZA BERRIA, ANDRE MARI ZURIA, SAN ANTONIO, SAN PRUDENTZIO ETA DATO:

Blusa txikien kalejira.

# ARRATSALDEZ

✔ **4:45etan**

PLAZA BERRITIK ZEZEN PLAZARA

Zezenetara joatea.

ANDRE MARI ZURIAREN PLAZATIK MENDIZABALARA:

Zirkura joatea, blusa txikientzat; Gesaltza txarangarekin.

✔ **6etan**

ZEZEN PLAZAN

Abonuko hirugarren zezenketa. Sepulvedako abeletxeko zezenak, Miguel Báez "Litri", Enrique Ponce eta Jesús Janeiro "Jesulín de Ubrique" zezen-hiltzaileentzat.




FLORIDAKO PARKEAN

Haurrentzako animazioa: **Azkona** (euskaraz).

VICENTE GOIKOETXEA KALEAN

Nafarroako jotak: **Los Pamplonicas.**

✔ **6etatik 8etara**

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Gargantua.

✔ **7etan**

MUSIKETXEKO LORATEGIAN (SAN ANTONIO KALEA, 14)

Ganbara musika: **Mondragón Brass Trombone**ren kontzertua (haize-metalezkoak).

AMÁRICA PLAZAN

Jazza: **Jon Roble Trio**

PRADOKO PARKEAN

Dantzaldia: Jaitxo taldea.

AIHOTZ PLAZAN

Euskal Herriko Haurren **Dantza Askatu Txapelketa.**

✔ **8:30etan**

ZEZEN PLAZATIK PLAZA BERRIRA

Zezenetatik itzultzea.

AIHOTZ PLAZAN

**Dantza Plazan:** Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaitajoleekin.

# GAUEZ

✔ **11etan**

ARRIAGAKO SAN JUAN PARKEAN

3. su artifizialak, **Valecea** piroteknniaren eskutik.

✔ **11:30etan**

GELTOKIAREN PLAZAN

Gau-jaia: **Iman** orkestra.

AIHOTZ PLAZAN

Kantaldia: **Mikel Markez.**

✔ **12etan**

FORU PLAZAN

Kontzertua: **Etsaiak.**

✔ **12:30etan**

PLAZA BERRIAN

Gau-jaia: **Maravella** orkestra.

PROBINTZIA PLAZAN

Rancherak: **Paco Formoso** eta **Passarela** orkestra.

✔ **11etatik goizeko 3etara**

Musika kaleetan, Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreekin.



K2
KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardiobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendugimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrean iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

**ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estaligirotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoa,...**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## GOIZEZ

✔ **9etan**

SAN MIGEL PARROKIAN

Meza, blusa beteranoentzat.

✔ **10etan**

PLAZA BERRIAN

**Dianak**.

**10etatik ordu bietara**

PLAZA BERRIAN

"Bereziak" gastronomi lehiaketa, blusa taldeentzat.

✔ **11etan**

ZEZEN PLAZAN

Zekorrak.

✔ **11etatik 15etara**

Foru plazan (bolatokia)
Bolo-jokoa: Andre Mari Zuria saria

## EGUERDIAN

✔ **12etan**

ZEZEN PLAZATIK

Kalejira: **Arabako trikitixa Elkartea**

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Gargantua.

VICENTE GOIKOETXEA KALEAN

Pailazoak: **Txoropio eta Pantxi** (euskaraz).

PLAZA BERRIAN

Kontzertua: Araiako Musika Banda.

FORU PLAZAN

Herri-kirolak

✔ **12etatik 14etara**

AUZOETAN:

Musika-giroa, Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreekin.

✔ **12:30etan**

FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN

Kontzertua: Udal Musika Banda.

AIHOTZ PLAZAN

Trikitixa-Alboka: Udal Folklore Akademia.

AMARIKA PLAZAN

**"El meneito veterano"** Beteranoentzako dantza lehiaketa, Blusen Batzordeak antolatuta

✔ **1:30etan**

AIHOTZ PLAZAN

Bertsolariak: **Irineo Ajuria, J. Enbeita eta Haritz Lopategi.**





## ARRATSALDEZ

✔ **4:45etan**

PLAZA BERRITIK ZEZEN PLAZARA

Zezenetara joatea.

✔ **6etan**

ZEZEN PLAZAN

Abonuko laugarren zezenketa. Cebada Gagoren abeletxeko zezenak, Pepín Liria, José Ignacio Ramos eta Raul Gracia "Tato" zezen-hiltzaileentzat.

FLORIDAKO PARKEAN

Haurrentzako animazioa: **Adardunak** (euskaraz).

✔ **6etatik 8etara**

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Gargantua.

✔ **6:30etan**

FORU PLAZAN (PILOTALEKUA)

Esku Pilota: Andre Mari Zuria saria.

✔ **7etan**

MUSIKETXEKO LORATEGIAN (SAN ANTONIO KALEA, 14)

Ganbara musika: **Piano** kontzertua: Patricia Azanza.

AMÁRICA PLAZAN

Jazza: **Iñaki Arnal Cuarteto.**

PRADOKO PARKEA

Dantzaldia: Jaitxo taldea.

AIHOTZ PLAZAN

Arabako Trikitilarien Txapelketa.

✔ **8:30etan**

ZEZEN PLAZATIK PLAZA BERRIRA

Zezenetatik itzultzea.

AIHOTZ PLAZAN

Dantza Plazan: Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaitajoleekin.

## GAUEZ

✔ **11etan**

ARRIAGAKO SAN JUAN PARKEAN

4. su artifizialak, Zaragozako Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Karia Espectáculos-ek aurkeztuta: "Despues de la Lluvia". Serbi Belbel-ek idatzi eta zuzendua, Amparo Larrañaga eta Maribel Verdú-rekin.

✔ **11:30etan**

AIHOTZ PLAZAN

Kantaldia: **Trabuko.**

GELTOKIAREN PLAZAN

Gau-jaia: **Drakkar taldea**

OLAGIBEL KALEAN

4 zezensuzko eta musika-giroa: Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreak.

✔ **12etan**

FORU PLAZAN

Kontzertua: **Formula V** eta **Los Diablos.**

✔ **12:30etan**

PROBINTZIA PLAZAN

Salsa: **Las conquistadoras del Caribe**.

✔ **11etatik goizeko 3etara**

Musika Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreekin, erdialdean eta Alde Zaharrean barrena.





GUREA
jatetxea
Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

HIRUAK
JATETXEA
Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Koro Campos

**El Portalon jatetxeko sukaldaria**

Jatetxeko lana dela eta ez du denbora gehiegi izaten jaietan gozatzeko. "Egun hauetan jende asko etortzen da jatetxera eta jaietan hemen egon behar izaten dut lan eta lan". Hala eta guztiz ere, oso gustokoak ditu jaiak eta pozik aritzen da lanean: "Oso giro ona egoten da eta nik neurean asko disfrutatzen dut. Urtetik urtera, gainera, giroa gero eta hobea da. Honera kanpokoak, blusak eta era guztietako jendea etortzen da eta denak oso alai eta umore onez".
Zerbait nabarmentzekotan kalean sortzen den giroa azpmarratuko luke Korok: "Anbiente ona egoten da non-nahi primeran egon zaitezke: teatroa dela, zezenketak direla edota pelota partiduak direla. Ni edozertarako prest egoten naiz jaietan. Nire arazo larriena da egun horietan hemen lan asko izaten dela eta ezin dudala nahi adina ibili jaietan"

## GOIZEZ

### ✔ 10etan

PLAZA BERRIAN

Dianak, Udal Musika Banda, Udal Txistulari Banda, Aldundiko Txistulari Banda, Indarra, Eltziego, Ezberdinak, Erletxo, Gozerdi, Biasteri eta Udal Folklore Akademiako gaitajole bandak, Rioja Alavesa txaranga, Gesaltza fanfarrea eta Eltziegoko Santa Zezilia Musika Banda.

### ✔ 10:30etan

PILAR ETA ZARAMAGA AUZOETAN

Rioja Alavesa txaranga.

### ✔ 11etan

ZEZEN PLAZAN

Zekorrak.

### ✔ 11etatik 15etara

FORU PLAZAN (BOLATOKIA)

Bolo-jokoa: Andre Mari Zuria saria.

## EGUERDIAN

### ✔ 12etan

ZEZEN PLAZATIK

Kalejira: Arabako Trikitixa Elkartea

ANDRE MARI ZURIAREN PLAZA, PLAZA BERRIA, DATO, ALAVA JENERALA, FORUAK ETA POSTA

Erraldoi eta buruhandien konpartsa.

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Gargantua.

FORU PLAZAN

Herri-kirolak.

VICENTE GOIKOETXEA KALEAN

Pailazoak: Zanima (erdaraz).

PLAZA BERRIAN

**Eltziegoko Santa Zezilia Musika banda**ren kontzertua.

### ✔ 12etatik 14etara

AUZOETAN

Gasteiz eta Callejón Sin Salida fanfarreak.

### ✔ 12:30etan

FLORIDAKO PARKEKO KIOSKOAN

Kontzertua: Udal Musika Banda.

AIHOTZ PLAZAN

Trikitixa: Aguraingo Trikitixa Eskola.

### ✔ Ordu batean

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Txotxongiloak: **Antzezkizuna** (euskaraz).

### ✔ 1:30etan

AIHOTZ PLAZAN

Bertsolariak: **Asier Iriondo, Asier Otamendi** eta **Zigor Enbeita.**

## ARRATSALDEZ

### ✔ 4:45etan

PLAZA BERRITIK ZEZEN PLAZARA

Zezenetara joatea.

### ✔ 6etan

VICENTE GOIKOETXEA KALEAN

Nafarroako jotak: **Voces navarras.**

ZEZEN PLAZAN

Abonuko bosgarren zezenketa. Los Bayones abeletxeko zezenak, Cesar Rincón, Juan Mora eta Pedrito de Portugal zezen-hiltzaileentzat.

FLORIDAKO PARKEAN

Haurrentzako animazioa: **Bajo la arena** (euskaraz).

### ✔ 6etatik 8etara

PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN

Gargantua.

### ✔ 6:30etan

FORU PLAZAN (PILOTALEKUA)

Esku Pilota: Andre Mari Zuria saria.

POSTETXEAREN PLAZAN

Rioja Alavesa txaranga.

### ✔ 7etan

MUSIKETXEKO LORATEGIAN (SAN ANTONIO KALEA, 14)

Ganbara musika. "Jesús Guridi" Musika Eskolako Hari Laukotea

AMÁRICA PLAZAN

Jazza: **Ricardo Urritia Quinteto.**

PRADOKO PARKEAN

Dantzaldia: Jaitxo taldea.

AIHOTZ PLAZAN

Dantza Plazan: Udal Folklore Akademia.

### ✔ 8etan

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Karia Espectáculos-ek aurkeztuta: "Despues de la Lluvia". Serbi Belbel-ek idatzi eta zuzendua, Amparo Larrañaga eta Miribel Verdú-rekin.

### ✔ 8:30etan

ZEZEN PLAZATIK PLAZA BERRIRA

Zezenetatik itzultzea.

AIHOTZ PLAZAN

Dantza Plazan: Larrain Dantza eta Txulalai, Udal Folklore Akademiako gaitajoleekin.

## GAUEZ

### ✔ 11etan

PRINCIPAL ANTZOKIAN

Karia Espectáculos-ek aurkeztuta: "Despues de la Lluvia". Serbi Belbel-ek idatzi eta zuzendua, Amparo Larrañaga eta Miribel Verdú-rekin.

PLAZA BERRIAN

Gau-jaia: **Los Dinosaurios**

### ✔ 11etatik 12:15etara

FLORIDAKO PARKEAN

Karaokea, Canal Gasteizek antolatua

### ✔ 12etatik ✔ 12:45etara

PROBINTZIA PLAZATIK

"Batucada"-Kalejira: **Rio Samba Show.**

### ✔ Goizeko ordu 1ean

ANDRE MARI ZURIAREN PLAZAN

Jai bukaera: Zeledon agurtu eta igotzea. Azken traka.

### ✔ 1:15etan

PROBINTZIA PLAZAN

Salsa: Rio Samba Show

PLAZA BERRIAN

Gau-jaia: **Los Dinosaurios.**

### ✔ 1:30etatik 3:30etara

FLORIDAKO PARKEAN

KARAOKEA, Canal Gasteizek antolatua



Ederki
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
*Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak*
*Estudioko argazkiak*
*Bideo industriala*
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

arcaya
Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69
SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIAK



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# mostrongotxoak

## Don Vitoren jatetxean afari xarmangarri bat

**O**porretan gaudelarik, jatetxe ezberdinak ezagutzeko aukera eta astia izaten dugu. Gaur, horregatik, lagun bat jatetxe italiar batera afaltzera gonbidatu dut. Primerako afaria egin ondoren, dirurik ez daukadala ohartu naiz, ordea. Kartera galdu egin dut nonbait! Jabearengana hurbildu naiz dena azaltzeko baina, nire zoritxarrerako, Don Vito siziliarra da jatetxeko nagusia: mafiosoa krudela, ospetsua eta zekena da bera.

Zer demontre egingo dut orain? Nola atera naiteke bizirik eta osorik jatetxe honetatik? Zer esango diot Don Vitori txikitu ez nazan? Egoera larri honetatik ateratzeko, Abendañoko mostrongotxoen laguntza eduki dut, horiek esperientziadunak baitira jateetxeetatik ordaindu gabe alde egiten. Eta sinisten ez baduzue irakur itzazue arazo honi ematen dizkioten irtenbide ezin hobeak.



**NIRE LAGUNAK** ordainduko luke nere afaria, errua berarena zela esango bait nuke. Horrela, bada, laguna jatetxean bakarrik utziko nuke eta denborarik galdu gabe ihes egingo nuke. Aukera hau onena bada ere, beste balizko irtenbiderik ere aurki daiteke: jabearekin borrokatu, lagunari dirua eskatu, bihar ordainduko duzula esan edo mozorratu.

**Ania, 10 urte**

**PLATERAK GARBITU,** erosketak egin, jatetxea txukundu, landarei ura bota, lagunak ordaindu, pastelak egin, komunak garbitu... arazotik bizirik ateratzeko bideak anitzak dira.

**Iraide, 10 urte**

**DARDARKA** landare baten atzean izkutatuko nintzateke edo platerak garbituko nituzke. Beno, nik badaezpada, dirua beti eskuan eramango dut.

**Anhai, 11 urte**

**KARTERA** bilatu bitartean, Don Vitori bere esklabua izango naizela esango nioke, eta berak nahi adina gauza egingo nituzke. Edozer gauza.

**Karlos, 10 urte**

**NIRE LAGUNA** jatetxean utziko nuke eta korrika bizian etxera joango nintzateke diru bila. Ondoren berriz jatetxera itzuli eta afaria ordainduko nuke. Halere beste zenbait aukera ere badaude. Adibidez, platerak garbitzen gelditzea, ihes egitea edo erlojua, lepokoa edo balioa duen zerbait jabeari ematea. Aukera asko dago.

**Amaia, 11 urte**

**KOMUNERA** joatearen aitzakiarekin, ihes egingo nuke, komuneko leihotik salto eginda .Beste herrialde urrun batetan ezkondu eta ez nintzen berriro bueltatuko.

**Mikel, 10 urte**


Txosnan egingo dugu topo elkarrekin

GASTEIZ • ADUR: Errege Katolikoak, 15 • 28 89 22
ZALDIARAN: Zaldiaran Plaza, 16 • 24 49 05
PINTO: Pintoreria, 74 • 28 97 80

ongi pasa festak ika euskaraz !




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Don Vitoren jatetxean afari xarmangarri bat



**ALBOAN DUDAN** pertsona ezezagun batek zorra ordainduko zidan. Gero nik berari ordainduko nioke, noski. Bestela, azalpenik eman gabe, zerbait janarira botako nuen, eta oso indartsuki kexatuko nintzen. Horrela dirua barkatuko zidan. Zergatik? Ba dirua daukadalako, baina momentu horretan ez. Hori dela eta, arazoa errezago konponduko da.

**Itsaso Miren, 11urte**

**GARRASIKA** hasten naiz, eta jabea etortzerakoan arratoi batzuk kartera lapurtu didatela azaltzen diot, gazta erosteko. Jabeak arratoirik ez daudela dio, eta ni banketxera diru bila joan beharrean, jostailuzko arratoiak erosiko ditut. Jatetxean jostailuzko arratoiak askatzen ditut, horrela Don Vito korrikan ihes egiten du eta nik ez dut txanpon bat ere ez ordainduko.

**Jon, 10 urte**

**BESTE HERRIALDE** batetara emigratuko nuke, platerrak garbitzea gustatzen ez zaidalako.

**Jon, 11 urte**

**NIK IHES** egingo nuke, eta hau posible ez baldin bada, platerrak garbituko nituzke. Zergatik? Bestela epaileren aurrean eramango ninduten.

**Leire, 11 urte**

**ONDOKO HAU** esaten diozu Don Vitori: Joño Pepe, lagun miña! Nor zara zu?-jabeak galdetuko dizu. Joño Pepe, nirekin joan zinen unibertsitatera! Beno agur, presaka nabil-esaten diozu, korrikan atera eta kotxea hartzen duzu. Tranpati, tranpati!-garrasi egingo du jabeak, baina jadanik ihes egin duzu eta ez zaitu harrapatuko.

**Oihana, 11 urte**

**JATETXEAN** urtebete edo gehiagotan lan egingo nuke, afaria ordaintzeko.

**Unai, 11 urte**



Lorea Zurimendi

# Umeak zaintzen ditugu

## GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42
Ana 26 65 95

## ARRATSALDEZ

Oihana 25 30 35
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Leire 23 12 23
Maider 24 90 62

## GAUEZ

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Maider 24 90 62
Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiraletan)

## ASTEBURUAN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Maider 24 90 62
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35

kangoroak geu


XIXILU
AMARIKA PLAZA 2
Tel. 23 00 68 GASTEIZ
JATETXEA

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfnoa: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

KLASEAK
matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
irakaskuntza ertaina eta unibertsitatea
26 03 54




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Ogetako gauak

## Ruben Beloki:

### Ez dakigu oporrak zer diren

***Oraingoa ez da zure unerik goxoena. Lehen Eugiri gertatu zitzaion legez, zure jokuak behera egin du azken hilabeteetan. Zelan azal daiteke hori?***

Ruben Beloki: Biok oso gazte ginela hasi ginen puntako pilotariekin jokatzen. Oraindik ere oso gazteak gara eta horren ondorioz gora-beherak izatea ez da harritzekoa. Pilotak gero eta gehiago eskatzen dizu, urteko 12 hilak lanean ematen ditugu eta ez dakigu zer diren oporrak. Gauzak horrela, ezin gara sasoi onean egon urte osoan.

***Puntako pilotari gehienak nafarrak zarete, zergatik gertatzen da hori, Ruben?***

Egia esan ez dakit zergatik. Pilota eskolak Euskal Herri osoan dauden arren fruiturik onenak Nafarroak ematen ditu. Dena den, hori momentu batetik bestera alda daitekeela uste dut. Bestalde, Nafarroako herri askotan frontoia baino ez dago eta pilotarako zaletasun ikaragarria dago

***Julian Retegik 42 urte ditu eta oraindik txapeldun dugu. Retegi bakarra al da...***

Ez da dudarik. Bospasei urte nituenetik beti finalak jokatzen ikusi dut. Mirestekoa da Retegirena. Egun aurkari dudanean ere oraindik mirestu egiten dut. Euskal pilotak izan duen jokalaririk handiena da, ezbairik gabe.



***Eta irabazten diozunean zer sentitzen duzu?***

Retegiren aurkako norgehiagokak bereziak dira beti. Egun horietan frontoia jendez gainezka egoten da eta euskal pilotaren historia aurrez aurre duzu. Julianen aurka jokatzea beti izan dut gustokoa.

***Pilotaren etorkizunari dagokionez baikorrak izateko arrazoirik badugu?***

Baietz esango nuke. Telebistak eta enpresa berriek pilota al-txatu egin dute eta frontoietara gero eta lagun gehiago hurbiltzen da. Une honetan nire ustez arazorik larriena pilotarien maila da: gailurrean oso pilotari gutxi gaude.




kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Gasteizko jaietan

**G**ezurra dirudien arren, jaietan ere gure herri eta hirietan ez da kirol saiorik falta izaten. Euskaldunok kirolzale amorratuak gara eta Gasteizko jaietan izango dugu non aukeratu. Herri kirolak, txirrindularitza, ur-kirolak... Kirola non-nahi, baina pilota guztien gainetik. Euskal Herrian ez dago frontoirik gabeko plazarik. Gasteizen, esaterako, Foru plaza dugu. Hala ere, ez da bakarra, pilotari profesionalak Ogetan aritzen baitira jaietako gauetan. Geu Gasteizek puntako bi pilotarirekin hitz egin du lehendabiziko aldiz. Hona hemen emaitza.

**Ismael Diaz de Mendibil**



## Patxi Eugi:

### Pilotari guztioi gustatzen zaigu Ogeta

***Oker ez banabil Julian Retegi, Retegi handia, lagun mina duzu?***

Bai, betidanik ibili gara elkarrekin.

***Pilotazaleak pilotari berrien premia larria nabaritzen zuen orain urte batzuk. Une horretantxe, baten beharrean bi agertu zineten: zu zeu eta Ruben Beloki. Zuek ere lagunak zarete?***

Pilotari guztiak bezalaxe, kantxan etsaiak gara. Hala eta guztiz ere, frontoitik kanpo lagunak gaituzu.

***Bitxia bada ere, profesionaletan ari zaretenetik biok aldi txarrak ezagutu dituzue. Lehen zu ibili zinen kili-kolo eta orain, aldiz, Ruben...***

Kirolariaren bizitzan denetik izaten da: une txarrak eta onak. Txapela duzunean hitzak onak dira guztiak. Gauzak gaizki doazenean, aldiz, leku guztietatik jasotzen dituzu kritikak. Horrela da eta ez dago aldatzerik, zuzena ez bada ere.

***Zure kirol bizitzan txapel asko irabazi dituzu. Baina bat aukeratzekotan zein duzu gogokoena?***

Zalantzarik gabe aurtengo eskuz banakako txapelketakoa.

***Eta zer esan zizun Retegik txapelik garrantzitsuena irabaztean?***

Lan gogorraren ostean emaitzak datozela. Lan eginez gero, saria jasotzen dela. Bera ere pozik zegoen. 24 urte baino ez ditut eta oraindik gehiago eskuratu behar ditut.

***Andre Mari Zuriaren jaietan Gasteizen izango zara?***

Jakina baietz. Gasteizko zita osogarrantzitsua da eta pilotari guztiok Ogetan jokatu nahi izaten dugu.

***Iaz ere egon zinen eta frontoia jendez gainezka egon zen egunero. Ogeta gorantza doa?***

Bai, Ogetako bolada txarrak atzean geratu dira. Antolatzaileek oso norgehiagoka onak eraman dituzte Gasteizera azken urteotan eta zaletuek, beti bezala, erantzun ona eman diote horri.

***Eta pilotariek izaten duzue parrandan ibiltzeko astirik?***

Zuek zenbat eta jai gehiago izan, guk orduan eta lan gehiago izaten dugu. Ondo pasatzeko betarik ez dugu, baina frontoian jendea gustora ikustea guretzat polita da eta herrietako jaietan horixe gertatzen da.




TXIRRINDUZ

★ Txirringak
★ Txirrindularientzako jantziak
★ Osagarriak

Judimendi etorbidea, 12 • tfnoa: 28 73 48
01013 • GASTEIZ

EVSKAL OKELA
LASAGABASTER
haragitegia eta urdaitegia
Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ




Ehiza • Arrantza
Kirolak
BELAKORTY
Frantzia kalea, 20
Tfnoa: 26 30 04




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# TARTA zerutiarra

ASOCIACION DE PASTELEROS Y CONFITEROS DE ALAVA

Andre Mari Zuriaren tarta 1987an jaio zen Arabako Pastel eta Gozogileen Elkartearen eskutik. 'La Blanka' izenez ezagutzen den tartaren konposaketa Gasteizko ikurrinaren koloreak oinarritzat hartuz egin zen: zuria (esnegaina) eta gorria (marrubi mermelada); goikaldeko urre kolorea Andre Mari Zuriaren ohorean jarrita dago. Sortu zen unetik gaur arte aldaketa txiki bat izan du: orain lehen baino azukre gutxiago darama.

Postre hau Gasteizko Jaietan baino ez da izaten salgai gozo-dendetan, "horrek ematen baitio bere erakargarritasuna, Errege Eguneko erroskoa legez", azaldu digu Luis Lopez de Sosoaga gozogileen elkarteko lehendakariak. Bere sorreratik igarotako bederatzi urteetan, 'La Blanka' tartak salmenta maila on bat lortu du. Lehendabiziko urteko eztanda arrakastatsua eta gero, urtero batez beste 10.000 bat tarta saltzen dira Jaietako astean zehar.

Ekimena, orohar, ona izan da eta horren lekuko Iruñako pastelgileak ditugu. Izan ere, Gasteizko ereduari jarraituz, egun San Ferminek berak ere antzeko postre bat baitauka.

## 70eko hamarkadako elkartea

70eko hamarkadan sindikalismo bertikala desagertu zenean sortu zen Arabako Pastel eta Gozogileen Elkartea. Ordutik hona egitasmo ugari abian jarri ditu: lehiaketak eta mintegiak antolatu ditu, herriko jai ugaritan hartu du parte, pastelgintzari bultzada sendoa eman zion industria eta dendak modernizatuz, pasteldegi eskola bat sortu du Altsasun, e.a.

1985ean Luis Lopez de Sosoaga aukeratu zuten lehendakari eta honek, bere laguntzaileekin batera, elkarteari bultzada berri bat emateko beharra ikusi zuen: "Hau zela eta, logotipo berri bat egin genuen Prudentzio Deunaren irudiarekin. (Araban 1715. urtearen inguruan egondako lehen pastelgileen elkartea Arabako zaindariaren omenean sortu baitzen). Jarraian, eta Prudentzio Deunaren eguna ospakizun gastronomikoa zela kontutan hartuz, egunari zegokion postre baten faltaz ohartu ginen. Orduan Prudentzio Deunaren tarta sortu genuen eta hurrengo urtean, 1987an, 'La Blanka' postrea atera genuen. Hori bigarrena izan zen eta dagoeneko zazpi bat baditugu".

Nola edo hala, Prudentzio Deunaren tartak Andre Mari Zuriarenak baino harrera hobea izan du orain arte, "azken finean jai egun hori nabarmenki gastronomikoa baita".

## Krisialdia

Elkarteko lehendakaria kezkati agertzen da aspaldiko partez pastelen kontsumoa jaitsi egin delako. Hiritar gehienok ikutzen gaituen ekonomi krisialdi orokorraz gain, Sosoaga jaunak egungo gizartean gertatzen ari den ohituren aldaketa aipatzen du errealitate honen ziotzat. "Lehenago familiak bateratuago bizi ziren, orain kide bakoitza bere kabuz ibiltzen da eta familia bazkaltzeko elkartzen ez denez, ez dira pastelak etxera eramaten. Bestalde, santuen izendegia beste era batera hartzen da egun eta jendea ez da mezetara eta gero pastelak erostera joaten. Gainera, loditzeko

asmo ederrak aire zabalean
la calle
taberna
Dultzaina , 10

ALISAS
TABERNA
Kutxi 59

ITURRI
TABERNA
Zapa, 57 GASTEIZ

Bacalao Giraldo
• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"
Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran •





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

beldur horrek ere bere eragina izan du salmenten jaitsieran".

Are gehiago, pastelgintza industrialak min haundia egiten dio artisauen pastelgintzari, azken hau baino merkeagoa delako eta gainera hiriko edozein etxaditako dendetan aurki daitezkeelako. "Batez ere egun berezietan joaten da jendea pastel-dendetara".

Krisialdian ere murgildurik egon arren, Araban egoera beste leku askotan baino hobea da, "besteak beste jai eta tradizioak gure artean oso sustraituak daudelako eta Elkarteak orain arte hartutako neurriei esker. Hala ere, oraindik beste bultzadatxo bat beharko genuke". Arabako gozogileen elkarteak Estatuko pastelgintza kongresu batean parte hartuko du laster.



# nola egin?

## Osagaiak

**Bizkotxorako**
250 gr. azukre
225 gr. irin
25 gr. almidoi-irin
12 gorringo
12 zuringo,
Arraultze bat

**Esnegain harroturako**
Litro bat esnegain
150 gr. azukre

**Marrubi gustuko esnegain harroturako**
Litro bat esnegai
200 gr. marrubi mermelada

## Pausuz pausu

Bizkotxoa egiteko, nahastu kaiku batean azukrea, gorringoak eta arrautzea. Ondoren, jarri ontzia Maria bainuan egoztera azukrea disolba dadin. Zuringoak elur-punturaino irabiatu ondoren, erantsi irina aurreko nahasteari eta behar adina zuringo. Labeko erretiluan jarritako Manila-paper baten gainean bizkotxo oreko zerrendak bata bestearen ondoan ipini eta labekatu.

Bizkotxoa amaitu eta esnegainak harrotutakoan, postrea kapaka osatzen da ondoren azaldu bezala: 1) Bizkotxo oinarria almibar eta alkoholik gabeko kirschekin bustitzen da. 2) Marrubi mermelada bainu bat. 3) Esnegain harrotu kapa bat. 4) Bustitako bizkotxo kapa bat. 5) Marrubi mermelada bainu berri bat. 6) Marrubi gustuko esnegain harrotu kapa bat. 7) Merenge errea esku batekin amaitu.

ARABAKO PASTEL ETA GOZOGILEEN ELKARTEA


ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA
ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ

CARNICERIA SANTI CHARCUTERIA
SANTi
HARATEGIA-URDAITEGIA
PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA
JAVIER AIZPEOLEA
Florida Azoka 2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ

JOSEBA
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

JAMON IBERICO BELLOTA
PRODUCTOS IBERICOS DE BELLOTA
AIZPEOLEA
Tfno: (945) 13 24 48
Florida, 19 VITORIA GASTEIZ

gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak

KALITATEKO EUSKAL OKELA
EUSKO LABEL
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

La Diputación Foral de Alava construye con visión de futuro, recuperando y respetando nuestro medio ambiente. Integrando las Obras Públicas en el entorno.

La nueva autovía de la N-1 y el sistema de abastecimiento de agua en el valle de Ayala son buenos ejemplos de ello.

**Diputación Foral de Alava**
Departamento de Obras Públicas, Transportes y Medio Ambiente

**Arabako Foru Aldundia**
Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Saila

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




ZK.

**Klaseak euskaraz**

OHO (EGB)
BBB (BUP)
UBI (COU)
LH (FP)

*Abuztu oso-osoan ere zabalik*

landaburu

AKADEMIA

GEU BABESAREKIN

**Guatemala, 12 behea**
**(Francisco de Vitoria Institutuaren atzealdean)**

12 09 50
909 42 88 36

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa